

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 615/2020 Erabakia, abenduaren 1ekoa. Behin betiko onespena ematea Laudioko udalerrirako egindako ondasun higiezin gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruen mugaketari

Azaroaren 20ko 601/2020 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko onespena eman zitzaion ondasun higiezin gaineko zergari loturiko Laudioko udalerrirako hiri lurzoruen mugaketari, udalerrirako plangintzan egindako hainbat aldaketa direla eta egin beharreko eguneraketa gauzatzeko.

Laudioko Udalaren jakinarazpen baten bidez, udal horrek uko egin zion alegazioak aurkezteari Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 11. artikuluen 4. apartatuan ezarritako 15 eguneko epearen barruan.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea, honekin batera doan planoaren arabera, ondasun higiezin gaineko zergari loturiko Laudioko udalerrirako hiri lurzoruen mugaketa, udalerrirako plangintzan egindako hainbat aldaketa direla eta egin beharreko eguneraketa gauzatzeko.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan izan behar da Ondasun Higiezin gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 3.2.b) artikuluan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egunez, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak jar ditzaten. Laudioko Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikuluen 5. apartatuan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^º JOSÉ PEREA URTEAGA